


# DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 304. zenbakia. 2021eko urria

**Aurten bai,  
badator  
San Martin**



San Martin Kulturala 2021

# Bertso jaialdia

Erreua Antzokian, urriaren 29an, 20:30ean

**Igor  
Elortza**



**Uxue  
Alberdi**



**Irene  
Basagoiti**



**Miren  
Amuriza**



**Unai  
Iturriaga**



**Nerea  
Ibarzabal**



**Gai-jartzailea:  
Maite  
Berriozabal**



**Sarrera: 10€**  
Lobiano Kulturgunean,  
Kutxabankeko  
webgunean eta  
kutxazainetan  
salgai.



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Estibalitz González,  
Eneko López,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Jon Saez,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Drogeteniturrri.

**LAGUNTAILEAK:**

Eskolabari ikastetxea,  
Begoña Fernández,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López, Valentin Mugarza  
eta Olatz Santos.

**ARGAZKIAK:**

Maren Agirregomezkorta,  
Igone Amesti,  
Eskolabari ikastetxea,  
Begoña Fernández  
Estibalitz González,  
Eneko López,  
Valentin Mugarza,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Olatz Santos, Ermuko Udala,  
Ekhi Velar eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: ume-kantua

## Aitxitxa eta amama

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))


Aitxitxa eta amama  
juan ziran mendira,  
aizkoria galduta hasarratu ziran.  
Aitxitxak amamari  
kopetatik tira,  
amamak aitxitxari  
praketatik tira.  
Tira eta tira,  
txikituak eranda adiskiriatu ziran.



# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA ..... 4 Maren Agirregomezkorta (Alemania)	KIROLZALE ..... 16 El Sartenazo padel taldea
ERREPORTAJEA ..... 5-7 Maria Rosario Arrizabalaga	ESKOLEN TXOKOA..... 17 Eskolabari Ikastetxeko berriak
MALLABIAN ZER? ..... 8-9 Eider Hoyos, ikaslea	IRITZIA..... 18 Zuri (Olatz Santos)
ERREPORTAJEA ..... 10-11 Rosario Zubizarreta erraketista	BOTEPRONTOAN ..... 19 David Marcos
MOTZEAN ..... 12-13 Esther Astarloaren erakusketa	ANTZINAKOAK ..... 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? ..... 14-15 Auto Klasikoen IV: Kontzentrazioa XXXI. San martin Azoka	ZORION-AGURRAK..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
	AZAROKO AGENDA .... 22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Maren Agirregomezkorta

18 urterekin Bartzelonara joan zen ikastera, eta Ingalaterran, Frantzia eta Madrilen bizi izan da ordutik. Maren Agirregomezkorta ermuarrak Nurembergen (Alemania) eman ditu azken 7 urteak, Puma enpresan lanean.

- Madrilen bizi zinela, lana topatu zenuen Alemanian. Erraza izan zen atzerrira joateko erabakia berriro ere hartzea?

Bai, atzerrira joateko gogoa neukan berriro ere, eta gainera topatu nuen lana oso interesgarria iruditzen zitzaidan.

- Nola imajinatzen zenuen Nuremberg?

Ez nuen asko pentsatu nola izango zen, ordurako Alemania ezagutzen nuelako. Hala ere, Nurembergek ez dauka zerikusirik Berlinekin, esaterako, eta aldaketa handia izan zen Madriletik hona etortzea.

- Zer izan zen gehien harritu zintuena?

Igandeetan den-dena itxita dagoela! Horrez gain, ohikoa da astean zehar etxetik kanpo afaltzea, oso goiz. Lanean hasi eta astebetara enpresako aforria izan nuen, eta 21:00etarako

etxean nengoen, afalduta.

- Eta janaria oso ezberdina da?

Bai, hasieran *shocka* izan zen. Neguan, esaterako, ez daude barazki asko, sustraiak baizik, kozinatzen ez dakigunak. Eta frutak oso garestiak dira: aleka erosten dira, eta piku batek 50 zentimo edo euro bat balio dezake.

- Zelan moldatzen zara alemanarekin?

Egunerokotasunean aritzeko beste dakit, baina lanean ingeleseaz hitz egiten dugu.

- Non egiten duzu lan, bada? Puma kirol markan, e-commerce atalean, hau da, merkataritza elektronikoa. Edukien arduraduna naiz.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goizean goiz jaikitzen naiz, 6:30ean, eta 8:00etarako lanean egoten naiz. 12:00etan



Maren Agirregomezkorta Museumbrücke zubian, Nurembergen.

bazkaldu, eta 17:00ak edo 18:00ak inguruan etxera joaten naiz.

- Zer egiten duzu denbora librean?

Mutil-lagunarekin etorri nintzen Madriletik Nurembergera, eta Zarautzen ezkondu ginen. Duela hamabost hilabete gure bi seme-alabak jaio ziren, eta denbora librean etxean egoten gara askotan: kozinatzen, pelikulak ikusten... Asteburuetan lagunekin ere geratzen gara.

- Gustura zaude Alemanian?

Bai, baina faltan botatzen ditut hango ohitura batzuk, janaria eta sozializatzeko modua.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Udan egon ginen, eta ahalegintzen gara ahalik eta gehien joaten, baina egungo egoerarekin ez da erraza bidaiatzea.

- Uste duzu Ermura bizitzera bueltatuko zaretela?

Bai, asmoa bada Ermura bueltatzea. Eta Ermura ez bada, Euskal Herrira behintzat.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**AIZ**

**AIZ Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Gaixotasun larri batek eraman zuen uztailean Maria Rosario Arrizabalaga Urreta, Mariarro, emakume ezagun eta balioetsia, bai Ermuan, bai bere militantzia sozial eta politiko nekaezinak eraman zuen munduko hainbat lekutan. Erratzeko beldurrik gabe esan dezakegu Mariarrok eskola politiko bat sortu zuela Ermuan. Izan ere, klandestinitatean frankismoaren aurka borrokatu zuenetik, erreferentziazko figura gisa agertu zen. Hainbat eta hainbat proiektu bultzatu zituen, beti ilusio eta indar berarekin, bere lagun guztiakin partekatutako amets bat gauzatu nahian: "beste herri bat, mundu hobe bat eraikitzea", alegia. Ingurukoek ondo zekiten haren hiztegian ez zeudela *etsipena* edo *ezinezkoa* hitzak. Mariarrok zerbaiten alde borrokatzen bazuen, mundu guztiak jakiten zuen. Haren zintotasuna eta suhartasuna deserosoak ziren batzuentzat, baina ia beti eraginkorrak. Mariarrok arrasto ezabaezina utzi du, zalantzarik gabe, eta parte hartu zuen elkarte guztiek, lagunek eta senideek, baita Ermuko herriak ere, merezitako omenaldia egin nahi diote, bere borroka eta konpromiso-bizitza aintzat hartuz .

Mariarroken lagunak

Mariarro

Bizitzaz gozatzen bazekien, eta bidaiatzea gustukoa zuen. Aisialdian ere militante: proiektu interesgarriak edozein lekutan topatzen zituen eta herrira ekarri, hemen ere sarea josteko. Emakume urduria, alaia, eskuzabala, kurioa eta behatzailea, hitz errazekoa eta adimen handikoa, dena interesatzen zitzaion, kulturatik hasi eta hirigintzaraino, ekonomia edo hezkuntza barne.



Borrokak



Miguel Angel bere bikotekidearekin Familien Elkartearen eta Herri hautagaitza batean lan egin zuen Ermua hobe bat lortzeko. Parte hartu zuen Ermuko *planiraren* aldeko borrokan, intsumisio mugimenduan, NATOren aurkako ekitaldietan, pentsio duinen aldeko manifestazioetan, Ermuko nagusien egoitzako egoera salatzeko ekintzetan, eta salatu zuen espetxeetako matxismoa, emakume presoekin bat eginez.



Hamburguesería  
**TITANIC**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
2012ko BILBOKO TXORIZO TXAPELDUN ETAN  
BIZKAIKO TXAPELDUNAK  
PROBLEMA 3-943170563  
ERMUA

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

SPARA

ZUK ERABAKI [www.spara.es](http://www.spara.es)  
[info@spara.es](mailto:info@spara.es)

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
[zuzenbidekontuak@gmail.com](mailto:zuzenbidekontuak@gmail.com)

Feminismoa

Feminista muineraino, lila kolorez tindatzen zituen borroka guzti-guztiak. Ermuko Emakumeen Asanbladaren sortzaile, Emakumeak Sustatzeko Zentroan ere parte hartu zuen, eta 1987an udal hauteskundeetara aurkezteko Emakume Hautagaitzaren zerrendaburua izan zen, emakumeen beharrak eta eskubideak plazaratzeko helburuarekin. Bere borrokaren ondorio dira babes-etxebizitza eta Arretarako Udal Bulegoa, Gazteei Sexu-informazioa emateko Bulegoa eta Emakumeen Topalekua ere.

Herri partaidetzaren bultzatzaile amorratua, espazio horien defentsan aritzea egokitu zitzaion azken garaian, hala nola Ermuko Berdintasun Kontseilua, Emakumeen Etxea eta Nazioarteko Elkartasun eta Kooperazio Kontseilua.



Sahara - Harrera

Sahara bihotzean zeraman, eta lan handia egin zuen herri saharaiaren askatasunaren alde, hango emakumeen berdintasunaren alde eta, zehazkiago, gaixo zeuden umeei osasun-zerbitzuak emateko, Tinduf-eko kanpamentuetatik Ermura ekartzen baitzituen. Iraultzailea, arrazakeriaren aurka eta berdintasunezko bizikidetzaren alde egin zuen lan azken hatseraino. Herriko plazan edo pankarta baten buruan, bere irudia gure historiaren parte da, eta bere memoria gure memoria kolektiboaren zati garrantzitsua.



**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Baxo  
48260 Ermua Bizkaia  
94 317 66 90  
peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Eider Hoyos, ikaslea:

# "Oroitzapenak lantzeko zerbaiten falta sumatzen nuen"

Lidergo ekintzailea eta Berrikuntza - LEINN Graduko ikaslea da Eider Hoyos mallabitarra, eta azken urteko proiektuan buru-belarri dihardu azkenaldian, bere taldearekin batera. Medorik, Alzheimerra moteldu dezakeen jokoak, hainbat eragileren interesa piztu du.

## - Zer dela-eta hasi zinen proiektu hau lantzen?

Nire ikasketekin lotuta dago, izan ere horretan datza nire gradua: proiektu ezberdinak sortu behar ditugu, eta haiek aurrera ateratzeko gai izan behar gara. Duela 6 hilabete inguru, Korean geundela, Alzheimerraren esparruan jardutea erabaki genuen taldekideok: Maider Alonso arrasatearrak, Naia Parra durangarrak eta nik.

## - Zergatik aukeratu zenuten Alzheimerra?

Nagusiek asko sufritu dute COVID-19arekin, ezin zutelako bisitarik jaso, besteak beste. Opari bezala, 2020ko gabonetan puzzle pertsonalizatuak eraman genituen egoitza batera, egoiliarren senideen argazkiekin, eta iruditu zitzaigun familia hurbiltzeko modu bat izan zitekeela. Momentu hartan ikusi genuen memoriaren esparru hori gustuko genuela.

## - Sentsibilitate berezia duzue memoriaren gaitzekin?

Bai, nire aitona Alzheimerra

izan zuen, eta Mainerren amamak ere. Lehenengo lerrotik ezagutzen dugu gaixotasuna, eta badakigu zelako gogor den gaixoak zu ez ezagutzea. Horregatik, senideak edota gertukoak oroitzeko joko hau okurritu zitzaigun. Gustatuko litzaidake nire aitonaekin probatzea, baina jada ezinezkoa da. Nik puzzleak egiten nituen berarekin, eta margotu, ondo etortzen zitzaiolako, baina oroitzapenak lantzeko zerbaiten falta sumatzen nuen.

## - Zertan datza Medori jokoak?

Oroitu nahi den pertsona bakoitzarekin lau karta egiten ditugu: senidearen argazkiarekin, izenarekin, senidetasunarekin eta azkena izena eta senidetasuna batuta. Gaixo bakoitzari 20 pertsonen osatutako karta-sorta ematen diogu gehienez, eta lau joko proposatzen diogu. Horie esker memoria lantzen hasten da, dinamizatzaile edo senideen laguntzarekin. Gainera, ebaluazio orri bat eranstean



dugu, gaixoaren eboluzioari jarraipena egiteko.

## - Gaixotasunaren edozein fasetan erabili daiteke?

Ez, jokoaren zailtasuna gaixoari egokitu behar zaio. Dena den, badakigu pertsona berak ez duela beti maila bera erakutsiko, egunaren arabera gorabeherak izaten dituztelako.

## - Joko honekin aritzeak eragin positiboa du gaixoengan?

Bai, badakigu ezinezkoa dela Alzheimerra sendatzea, baina joko honekin moteldu egin daiteke.

## - Nondik dator Medori izena?

Bi hitzen arteko nahasketa da. Alde batetik ingelesezko *memory* hitza; bestetik Dory, *Doryren bila* pelikulako arrain

protagonista, epe laburreko memoria galtzen zuena.

## - Hainbat komunikabidetan agertu zarete...

Bai, Alzheimerraren Nazioarteko Egunean, irailaren 21ean, komunikabide ezberdinetan agertu ginen: Naizen, Goienan, La 1n, sare sozial ezberdinetan... Proiektu berritzailea da, eta interesa piztu du.

## - Zein da zure asmoa aurrera begira?

Gustatuko litzaidake ikasketak bukatutakoan ere, proiektu honekin jarraitzea, eta beste herrialde batzuetara zabaltea. Gainera, ildo beretik doazen proiektu berriak sortu nahiko nituzke.

Dorleta Vidal

# Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



## ORBE TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallera:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com



## NESKEN FRONTENIS MARATOIA BURUTUKO DA URRIAREN AZKEN ASTEBURUAN

Urriaren 30ean eta 31n nesken frontenis txapelketak burutuko dira Mallabian. Larunbatean, urriak 30, banakako txapelketa egingo da eskolako frontoian, eta bi sari egongo dira jokoan: 100 euro eta txapela irabazlearentzat, eta 75 euro eta garaikurra txapeldunordearentzat. Domekan, urriak 31, bikotekako txapelketaz gozatzeko aukera egongo da herriko frontoian. Bikote irabazleak 250 euro eta txapela jasoko ditu; bigarren sailkatuak, 175 euro eta garaikurra. Izena eman nahi dutenek 669 028 718 telefonora deitu beharko dute eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, euskaldunez gain, dagoeneko Burgoseko, Salamancako, Soriako, Zaragozako eta Errioxako kirolariek izena eman dute.

## URRIAREN 31N GAU BELTZA BURUTUKO DA



Hainbat herritarren ekimenez Gau Beltza ospatu zen iaz Mallabian estreinakoz, eta aurten ere antzinako ohitura honi heltzeko asmoa dute. Dagoeneko jai-egun horretarako egitaraua kaleratu dute herritar hauek, Mallabiko Udalarekin, parrokiarekin, Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin eta Satxibu aisialdi taldearekin elkarlanean. Gainera, aurten ere bi bideo zabaldu dituzte hainbat sare sozialetan: bat Pello Mugarzak sortutako koplak jakitera emateko; eta bestea, herri ekimena sustatzeko eta jendea parte hartzera animatzeko.

URRIAK 31 2021  
**GAU BELTZA**

**12:00ETAN Heriotza errituak hitzaldia eta kanposantu zaharrera bisita, kontzejuzarrean.**

**17:00ETAN Kalabazak hustu, mozorrotu eta aurpegiak margotzea. Parkean.**

Bakoitzak bere kalabaza, tresnak eta arropak ekarri behar ditu. Haur bakoitzarekin gutxienez heldu bat.

**18:30EAN Kantu kalejira zaratatsua. Plazan hasita.**  
Zarata egiteko tresnak ekarri!

**19:30EAN Iluntasuna piztu... parkeko argia itzali!**  
Ez ahaztu kalabaza parkean prest uztea!

Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharren kargu egingo.

**ANTOLATZAILAK:**

HERRI EKIMENA Mallabiko Parrokia gaurbelza.eus Jantundia eta Herriko Abesbatzak SA TM BU 1

# FEREDU SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

**B**itxia da Rosarioren jaiotzaren erregistroa: bere aitak inskribatzen du Ermuan, baina dokumentuak dio umea Mallabiko Useleta baserrian jaio zela 1918ko ekainaren 17ko goizaldean. Bere karneak Ermukoa dela dio.

Aita, Juan Cancio Zubizarreta, ermuarra zen eta ama, Cornelia Churruca mallabitarra, Useleta baserri horretakoa. Bertan jaio zen bikotearen lehen alaba hau, Ermuan ez-konduta bizi ziren arren. Umea jaiotzen denean, armagina da aita ogibidez, baina buruz buruko pilotaria ere izan zen. Horrek, zalantza barik, zale-tasun familiarra eta bere 6 seme-alabetako lauren ibilbide profesionala markatuko zuen nonbait: Rosario eta Eladia erraketistak izan ziren, eta Ignacio eta Fernando puntistak, laurak profesional mailan aritutakoak.

Bilboko Larrinagako kartzelaren kontrako erasoan hil zuten Juan, eta Corneliari, gerrako alargun bezala, estanko bat eman zioten Erdikokalen. Gerra ostean, Rosario gaztea Durangora joaten zen sakaren bila, eta arratsaldeetan Ermua kooperatiban egiten zuen lan. Manuelek entzundakoaren arabera, saka hori zen Tabakalerak asteazken edo ostegunero estanko bakoitzari ematen ziona, errazionamenduan zegokiona eta astero jaso behar zen tabako-kupoa. Tabako beltza izaten zen, biltzekoa, merkeagoa izaten zena. Baina Durangorako bidaia beste gauza batzuk saltzeko



## Rosario Zubizarreta, pilotari saga baten parte

**Zubizarretarrak, beste pilotari familia bat: aita eta lau anaia aritu ziren horretan, bostak modalitate desberdinetan jokatuz. Rosario zaharrena zen. Manuel semeak amaren gaineko gauza asko gogoratzen ditu eta beronek lagundu digu bere ibilbidea osatzen.**

aprobetxatzen zuen Rosariok: goiz esnatu eta trenean joaten zen Zornotzara. Han saltzen zituen egun batzuk lehenago Eibarko azokan erositako fruta eta izeba batek egiten zituen gaztak.

Ile-apaintzaile ere ikasi zuen, eta gogoan zuen egunen batean ilea baino zerbait gehiago moztu ziola ume bati, odola zeriola eta odola zeriola, eta etsita bera...

### "Ermua I"

Bere arreba Eladia ere erraketan aritzen zen, eta Salamanca joan ziren, hango Tormes frontoian jokatzeko. Rosario, "Ermua I" kantxan, atzelari bezala jokatu zuen eta sarritan bere ahizparekin bikoteka. Manuelen hitzetan: "Pilotari bezala jote ona zuen, trebea zen, antxixiketari ederto egiten zuen, baina goitik ezin zuen ondo jo, alturarik ez zuelako. Eladia miresten zuen, beti gorapatzen zuen. Harrotasunez esaten zuen beti bere ahizpa oso erraketista ona zela, bikaina jokoan".

Urte eta erdiz jokatu zuen. Tormes pilotalekua, Madrid pilotalekua... Salamancan Manuel Sánchez González ezagutu zuen, Peñaranda de Bracamonteko semea eta, Madrilera jokatzeri joan zen arren, euren bikote harremana jarraitu zuten. Bi ahizpek etxera bidaltzen zuten jokatzen zutenarekin kobratzen zuten gehiena, Manuelen hitzetan, "gainerako anaiak aurrera aterateko". Ahizpa Josefina ere Madrilera eraman zuten, erraketista gisa has



# URRETA

**burdindenda**

<ul style="list-style-type: none"> <li>✘ Etxea</li> <li>✘ Tresneria</li> <li>✘ Brikolajea</li> <li>✘ Errailak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✘ Giltzak</li> <li>✘ Sarrailagintza</li> <li>✘ Kit altzariak</li> </ul>
--	--

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

# KRABI

Ileapaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56    Diputazio, 5    ERMUA

zedin, baina ez zuen aurrera jarraitu.

Jokatzen ari zela, Rosariok ere utzi egin behar izan zuen: jokaldi batean belauna leionatu eta meniskoa apurtu zuen. Ondorioz erretiratu egin behar izan zen, oker handia zelako jokatzegatik kobratzen zuen kirolari batentzat. Eladiak, oster, 1946 arte jarraitu zuen erraketeatzen.

1943ko abenduaren 20an Ermuan ezkondu zen bere Manuelekin. Semeak gogoratzen du nola kontatzen zuen ezkontzako merienda Hanbreko tabernan izan zela, baina bezperan senargaiak morokil tripakada bat egin zuela. "Nire aita jatun ona zen eta amamak, gustura jaten zuela ikusita, gehiago eskaintzen ei zion: 'Gustatu zaizu?' Eta baietz. 'Ba ez arduratu, gehiago dago-eta!'. Hirugarren platerarekin lehertzeko zorian zegoela esan zien!".

Senar-emazteak Segovira joan ziren bizitzera eta 4 seme-alaba izan zituzten: Manuel, Roberto, Charo eta Begoña. Manuel, zaharrena, ezkontza egunetik justu urtebetera jaio zen, eta Rosariori gustatzen zitzaion esatea

bera jaio zenean dantzaldian egongo zirela. "Ze nolako dantzaldia izango zen egun hartan Hanbren? Askok jota, txistulariren bat-edo!" kontatzen du Manuelek. Segovian familiak bi denda izan zituen, Atalaya Bitxitegi enblematikoak. Rosariori mostradorea gustatzen zitzaion, jendearekiko tratua... eta Manuelen ustez, ikuspegi komertziala zuen eta bere garaiari aurrea hartzen jakin zuen. Bere berbetan, "borrokalaria bat izan zen bere bizitza osoan, kemen eta indar handiko andrea, oso ausarta. Emakume bezala baloratzen zekien, bere lekuan jartzen. Sarritan esaten zuen bezala garaia emakumeak aintzat hartzeko. Bikotean bere karakterra eta lekua zituen, ez emakumeei egokitu zaien rol hori. Zalantzarik gabe, zoriontsu izan zen!".

Kosta egin zitzaion denda utzi eta alde egitea, eta han baliagarri eta pozik sentitzen zen. Segovian hil zen 2002ko irailaren 11n, 84 urte zituela. Bezperan, 4 kilometroko ibilaldia egin zuen, haren baten hain gogoko zuen txandal arrosarekin, Pantera Arrosaren antza ematen ziona. Bertako Angel de la Guarda kanposantuan lurperatu zuten, senarra-

FRONTÓN TORMES  
TELEF. 1362 SALAMANCA

Parte del Cuadro de Señoritas que, con tanto éxito, viene actuando en la Cancha de este Frontón

Todos los días, Grandes Partidos y Quinielas

ren ondoan.

Bere ustez erraketista izateak zer suposatu zien galde-tuta, Manuelek argi dauka: "Etxetik irtetera bultzatu zuen ideia izan zen pilotan jokatuz bizimodua atera ahal zela. 'Ah

bai... ba jokatzera!". Etxeko zaharrena zenez, aurrera egin behar izan zuen eta ausarta izate hori bizitza osoan eraman zuen berarekin".

**Estibalitz González**

hanigan's  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA  
PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea - Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 - 659 75 74 59 - 943 53 92 23

Betsi denda Tailor peeples Erleja denda

Senén  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zehar bidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA  
943 172 412

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dnhoraciodecoracion.com

TAHERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

## MANKOMUNITATEAK PLASTIKOAK BILTZEKO ZERBITZUA ZABALDU DU ERMUKO ETA MUTRIKUKO GARBIGUNEETARA

Urriaren 19tik aurrera, hainbat plastiko mota utzi daitezke Ermuko eta Mutrikuko garbiguneetan, Mankomunitateak bi lekuetan egokitzapen txiki batzuk egin ondoren: fruta-denden, arrandegien eta abarren plastikozko kaxak, mota guztietako hodiak (urarenak, eraikuntzakoak...), bidoiak, edukiontziak, txanbilak, loreontziak, leihoak, pertsianak (burdinarik gabe), autoen kolpe-leungailuak (kamioienak ez), mahaiak, aulkiak, plastikozko paletak, eta zorrotenak, besteak beste. Orain arte, plastikozko hondakin hauek errefus gisa biltzen ziren, eta Zubietako ingurumen-balorizazioko instalazioan tratatzen ziren, tona bakoitzeko 180 euroko kostuarekin. Garbiguneetako bilketa-zerbitzu berriarekin, ordea, Aizarnazabalgo enpresa batera eramango dira, birziklatu eta lehengai gisa erabiltzeko. Prozesu honen kostua tona bakoitzeko 70 euro ingurukoa da.

## Esther Astarloa zeramikariaren lanak ikusgai daude Eibarren

Eibarko Portalean 60 emakume artisten lanekin osatutako erakusketan hartu zuen parte Esther Astarloak. EmPoderArte, Emakume Artisten Nazioarteko Elkartek eta hainbat erakunde eibartarrekin batera antolatua izan da. Estatu guztiko arte plastiko zein ikus-entzuneko andrazkoen lanak batu zituen, "Sorginak" izenburupean. Berarekin hausnarketarako bide bat zabaldu nahi izan da, XV-XVIII mendeen artean Europan, sorginkeriaz salata, hil zituzten 250.000 emakumeak hizpide hartuta. Ermuarrak obra bakarra osatzen zuten 5 pieza zeramiko aurkeztu zituen, "Sorginen laratza" izenburuarekin. Bilduma kolektibo honekin, emakume artisten lana bistaratu nahi izan da eta arte erakustokietan duten presentzia urria areagotu.



Arg. Ekhi Belar.


## Ziklo-kroseko denboraldi berriari ekin dio Aitor Hernándezek

Specialized-Ermua Innpulso taldeko txirrindulariak urriaren 16an ekin zion 2021-2022 denboraldiari. Aurretik 20 lasterketa ditu, Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako txapelketak barne. Hernándezek adierazi duenez, denboraldi honetan bizikletarekin gozatu nahi du berriro ere, eta jendeari bizikletarekin gozarazi.

# Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 17 43 44 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusiboak:

**Allianz**   
Seguros

## Txabi Arnelek bi liburu kaleratu berri ditu



*Berta berezi* eta *Neure zorria eta biok* dira idazle ermurraren azken argitalpenak, 10 eta 13 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa bata eta lau urtetik gorakoei bigarrena. Lagunen lagun den Berta eta bere kuadrillakoen abenturak idazteko orduan, Edu Zelaieta izan du bidelagun eta Alex Fernández irudigile. Edurekin idazten duen bigarren istorioa da, eta gutxi barru aterako dute hirugarrena ere: *Tatxan handiaren azken trukoa*, aurrekoak bezala Elkar argitaletxearekin. *Neure zorria eta biok* umore ukituarekin dago idatzita, eta izaera atsegina eta erakargarriko zorri bat du protagonista. Malota arduratu da irudiez, eta Triqueta verde argitaletxe galiziarren eskutik kaleratuko da, euskaraz, gaztelaniaz zein galegoz.

## Abian da Mallabiko eta Ermuko Berbalagun programa



Dagoeneko martxan da ikasturte honetako Berbalagun egitasmoa, eta iazko talde kopuru bera arituko da Ermuan zein Mallabian: zazpi eta bat, hurrenez hurren. Arduradunek azaldu dutenez, oraindik ere izena emateko aukera dago (663 070 492 telefonoan, Ermuko euskaltegietan, Mallabiko Kultur Etxean edo emanizena. praktikatu.eus helbidean). Bestalde, urriaren 18an Gurasolagun kanpainari ekin zitzaion, eta aurten Ermuko eskola guztietan parte hartu ahal izango da. Gainera, Ermua Kirol Taldearekin egindako elkarlanari esker, futbol talde honetan umeak dituzten gurasoek aukera izango dute euskara praktikatzeko umeek entrenatzen duten bitartean. Mallabian, aldiz, azaroaren 25ean ekingo zaio kanpainari. Ekintzei dagokienez, "azaroa oparoa izango da", azaldu dute egitasmo honen arduradunek: hilaren 10ean eta 14an Paseo-lagun burutuko da; 21ean, Mendilagun; eta 25ean Pintxolagun.

Bukatzeko, antolatzaileek jakinarazi dute irailaren 18an burutu zela Mallabitarrok egina ekintza, "arrakasta handiz". Izan ere, 40 mallabitar inguruk gozatu zuten Mallabiko herritarren zaletasun ezberdinak eta Mallabiko historia ezagutzen.

## HAINBAT ELKARRETARATZE BURUTUKO DIRA ABELETXE EGOITZAN LANGILEEN LAN BALDINTZAK SALATZEKO



ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, lau elkarretaratze egingo dira urria eta azaroa bitartean Abeletxe Egoitzaren aurrean (urriaren 14an, 21ean eta 28an, eta azaroaren 4an), 14:00etatik 15:15era. Kaleratutako prentsa oharrean irakurri daitekeen bezala, erabateko prekaritatea pairatzen ari dira azkenaldian, hala nola estres maila jasangaitzak. Halaber, lan bolumenaren ondorio fisikoak zein psikologikoak eragina izaten ari dira langileen osasunean. "Minimoetan gaude", salatu dute. Azaldu dutenez, bajak edota oporrak daudenean ez dira ordezkoak kontratatzen, eta erizainek eta medikuak orduka egiten dute lan. Egoiliarrek behar bezala artatu ahal izateko, langileek eskatzen dute egun dauden kontratu partzial guztiak jardun osokoak egitea, hala nola langile gehiago kontratatzea. "Vitalitas Abentxerentzat, langileak eta egoiliarrek bigarren mailako aktoreak gara, euren diru-sarrerak handitu dezaketen zenbaki hutsak", adierazi dute.

**Plan B**  
Coffee Lounge      Gin & Beer

**Torrealdy**  
ZURE ENANTEN-OSAGIARRERAKO BAIKIDE LESTERTEGIA  
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA      ERMUA

**CITROËN**  
AUTOS AMEDI  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi  
Orain  
KOTXERAK GILTZEN  
KOPIAK ere  
egiten ditugu  
ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**SAGARDUI**  
poltsak  
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

# Auto Klasikoen IV. Kontzentrazioa burutu da Ermuan

**Auto Klasikoen Ermuko Elkartek (ErmuClassic) kotxe klasikoen IV. Kontzentrazioa antolatu zuen Ermuan irailaren 26an. 100 kotxetik gora bildu ziren herriko kaleetan, eta elkartek La Palmara bidaliko du egunean jasotako diru guztia.**

**2**017ko apirilaren 23an, Gaztela eta Leongo Eguna ospatzeko, Ermuko Auto Klasikoen lehenengo kontzentrazioa antolatu zuen zentro kultural horrek. Hiru urte geroago (2019an) Ermuko Auto Klasikoen Elkarte sortu zen, eta berau antolatu zuen urte horretako kontzentrazioa, III. edizioa.

Gaur egun 11 bazkidek osatzen dute elkartea, tartean ermuarrak, mallabitarrak, elgoibartarrak eta gatikarrrak, eta haiek prestatu dute 2021eko edizioa, IV.a, irailaren 26an burutu zena. Bertan 110 auto eta 200 lagun bildu ziren,



Avilesetik, Asturiasetik, Errioxatik, hala nola Euskal Herriko hamaika lekutik etorritakoak.

Tokiko auto klasikoen elkartek 1.000 euroko donazio jaso zuen, eta bai bost kaxa arroparekin eta elikagaiekin ere. Hau guztihau La Palmako sumendiak kaltetutako biztanleei helaraziko zaie, larrialdi-zerbitzuen bidez. Gainera, Ermuko Udalak 2.000 euroko ekarpena egin du bertara bidaltzeko.

Ilido honetatik jarraituta, aipatu behar da ErmuClassic elkartek jostailu birziklatuen bilketa ere egiten duela, eta horren helburua dela esklerosi

anizkoitza duten pertsonen bi-zi-kalitatea hobetzea. Esparru honetan, Espainiako EM Elkarterekin egiten dute elkarlana.

## Familia handia

Ermuko Auto Klasikoen kontzentrazioaren antolatzaileetako bat den Raúl Pelayok azaldu duenez, kontzentrazioetan toki guztietako lagunak biltzen dira. Haietako batzuk, gainera, urtero parte hartzen dute, eta familiakoak balira bezala hartzen dituzte. Onartu du elkartek sortzen duen giroa dela gehien gustatzen zaiona: “Ez dago inolako giro txarrik, ez inolako inbidiarik, mundu

desberdin bat dela ezango nuke. Bakoitzak bere autoa ekartzen du, guztiok ikusi eta disfrutatu ahal izateko. Familia handi bat gara”

## Auto historikoa

Aurtengo kontzentrazioko kotxerik zaharrena 1954ko Renault Juvaquatre bat izan da. Bere jabea Muskizeko Sendar Ruiz da. Orain dela 5 urte kotxea erosi zuen, eta lehenengo aldia izan da auto erakusketatean parte hartu duela. “Giroa oso ona izan da, esperientzia aberasgarria benetan —azaldu du Sendarok—. Orain arte ez nuen autoa erabiltzen. Izan ere, konpondu ostean, hasi naiz hura erabiltzen”.

Modelo hau Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen Frantzia, 1948. urtean zehazki. Aurreko aldean ate bat zuen, barruko aldean ikusteko eta manejatzeko. Kotxe merkea zen eta ez zuen askorik kontsumitzen.

**Eneko López**



**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

**Probaleku, 7**

**Tfnoa. 943 17 46 51**

Drogeteniturrri, 304 zk.

**solozabal**  
t a b a k o a k

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



# Azaroaren 13an burutuko da XXXI. San Martin Azoka

2020an pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, San Martin Azoka ospatuko da aurten. Euskal Birusa Elkarteak buru-belarri dabil antolaketa lanetan, azaroaren 13an giro ezinhobea eta segurua eskaini ahal izateko.



Plazan:  
Nekazarien  
eta ekoizleen  
postuak.



Plazan:  
Taloen postua.



San Martin plazan:  
Kulki umeentzako  
jolasak.




Plazan:  
Txindurri dantza taldea.

Herriko kaleetan:  
Itsasi taldeko joaldunak.



Probalekun:  
Idi pareak.



Santiago plazan:  
Artisauak.



Herriko kaleetan:  
Bizkaiko gaiteroak.



Komentukuan:  
Eskoletako postuak.

## Eta gainera:

Argazki lehiaketa,  
herri kirolak,  
saiheski pintxoak,  
Luhartz erromeria,  
larraindantza,  
errifaren zozketa...

**eta askoz gehiago!**

El Sartenazo Padel Taldea:

# “Hasieran lagun taldea ginen; orain, 77 padelzalez osatutako taldea”

Ermuko El Sartenazo Padel Taldeak Bizkaiko eta Euskal Herriko Txapelketak irabazi ditu aurten, eta urriaren 24an Espainiako Txapelketa jokatu zuen Valentzian. Miguel Alvarez presidentea, Javi Tabliega kapitaina eta Dani Maeztu, Jon Ruiz eta Jon Alvarez taldekideak ditugu elkarrizketa honetan.

**- Denboraldi arrakastatsua izan duzue aurten. Nola zaudete?**

Gustura. Egia esan beste talde batzuekin elkartu izan garenean komentatu egin digute zelako giro ona dugun, eta horrek grina pizten digu. Bi talde ditugu esku artean: batek Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ditu; bestea Federaziotik sortu zen, eta Bizkaiko txapelketa irabazi du baita ere.

**- Nola antolatzen dira txapelketa hauek?**

Gu serietarako 24 lagun gara, eta serie horretan deialdia egiten da, ea nork ahal duen egun horretan jolastu. Izena ematen dutenetatik 10 aukeratzen dira. Guztira 5 partidu

jokatzen dira, bikote bakoitzak bat jokatzu eta helburua da jornada irabaztea. Lehenengo eta bigarren partidek 3 puntu balio dituzte, eta beste hirurek 2.

**- Nola sortu zen taldea?**

Gehienok Ermuan pistak ireki zituztenean hasi ginen jolas-tan. Horren harira pixkanaka elkartzen joan ginen eta Santxauetan torneo bat antolatu genuen. Horren ostean talde bat sortzeko *papeleoa* egiten hasi ginen. Bi talde ditugu Bizkaiko ligan: bat lehenengo kategoriara igotzear dago, eta bestea hirugarrenean dago.

**- Zenbat zarete taldean?**

Azkenaldian handitu egin da. Hasieran lagun talde bat ginen, orain 77 gara, eta horietatik 45 federatuta gaude.

**- Eta Sartenazo izena nondik dator?**

Bitxia da. Torneoetan izen eman nahi genuenean, "Ermuko padelzaleak" izena pentsatu genuen, baina ez ziguten utzi izan hori jartzen. Inguruko mendiekin, Aritzemendi pilo-



Gasteizen Euskadiko txapelketan, ezkerretik eskumara, makurtuta: Sergio, Jorge eta Jon; zutik: Yeray, Edu, Alberto, David, Javi eta Jon.

talekuarekin eta beste izen batzuekin saiatu ginen, eta ezezkoa jaso genuen. Behin gure artean ordea, "sartenazotara irabaziko dizut" zirikatzen hasi ginen, eta honekin saiatu ginen. Eta onartu, gainera.

**- Azken momentuetan jende asko hasi da padelean jolas-tan. Zer iruditzen zaizue?**

Oso pozik gaude. Egia da koronabirusetik hona jende asko hasi dela. Aukera ona iruditzen zaigu jendea taldera animatzeko, eta talde gehiago sortu ahal izateko. Astean behin ligaxka jokatzen dugu, eta interesatuak ongi etorriak dira. Xperty aplikazioaren bidez antolatzen dugu, baina egia esan, bi pistekin ezin da askorik egin eta orduak hartzea zaila dela. Udalari eskatu pista gehiago egiteko, herriko kirolariekin erabiltzeaz

gain, txapelketak egiteko hiru partida jokatu behar direlako aldi berean, eta horretarako pista bat falta zaigu.

**- Jendea taldera gonbidatu nahi duzue?**

Noski! Denok zaudete gonbidatuta! Bikote mixtoak asko jeitsi dira, eta ondo egongo litzateke hauek gonbidatzea eta animatzea, emakumeak eta gazteak, batez ere. Badugu email bat informazioa gehiago nahi jasotzeko (elsartenazopadel@gmail.com) eta baita Facebook eta Instagram. Horretaz gain padelean jokatu nahi duten guztientzat bi WhatsApp talde ditugu. Esaterako, baten batek jokatzeke bikotea aurkitzen ez badu, talde horietan galdetu dezake.

Nahia Ruiz Albizuri



Drogeteniturrri, 304 zk.

**Caperos**

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarkeoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA \* ESTETIKA EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apandegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12



# Eskolabarri ikastetxeak 25 urte bete ditu

Orain dela 25 urte, garaiko irakasle talde batek ausar-diaz eta konpromisoz beteta-ko erabakia hartu zuen eta, eskolaren itxiera saihesteaz gain, eskola eraldatu egin zuten, Eskolabarri Kooperatiba Elkarte sortuz. Ekintzaileago eta modernoago den eskola bat sortu zuten, euskalduna eta Euskal Herriko, eta bereziki Ermuko kulturaren oinarrituta dagoen hezkuntza eskaintzen duen eskola izanez.

Hasierako lehenengo urrats horiek oso zailak izan ziren: ikasle gutxi, diru arazo larriak... baina hala ere, Goienkaleko Haur Hezkuntzako instalazioaren berriztapen integrala burutu genuen. Pixkanaka-pixkanaka, lan eginez, gogoz eta proiektu berri baten eskutik, ikasgelak umez betetzen hasi ziren eta Goienkale-Iparragireko instalakuntzetan ume guztiak sartzeko arazoak izan genituen. Momentu horretan

Santa Anan dagoen eraikinera mugitzeko aukera izan genuen, baina instalakuntzak ez ziren egokiak Eskolabarriko eragileok landu nahi genuen Hezkuntza Proiektua garatzeko. Hori horrela izanik, handitze plana lantzen hasi ginen, eta 2017an



ametsa egi bihurtu zen. Santa Anako instalazio guztiak berriztu genituen eta eskola berri bat lortu. Geroztik, gure nahia da hezkuntza kalitatean ahalik eta eragin handien izatea, gure nortasun kooperatiboari jarraituz.

Urriaren 25ean izan zen gure urteurrena, eta hainbat ekintzekin ospatu genuen: hormai-rudiak, bertsoak, sorpresak...

Gainera, osasun egoerak hobera egiten duenean, eskolak merezi duen ospakizun berezia izango du. Mila esker Eskolabarri konfidantza izan duzuen guztioi.



## Hauteskundeak burutu dira Eskolabarrin



Bi urtetik behin egiten dugun bezala, Euskara, Ingurumen eta Ingeles batzordeetako kideak aukeratu ditugu, "Hauteskundeak" proiektuaren barruan. Horretarako, 3. mailatik aurrerako ikasleek beraien burua aurkeztu dute eta kanpaina egin: mitinak, kartelak..., eta urriaren 22an bozkatzeko aukera izan zuten. Oso ekintza motibagarria izan da eta, nahiz eta denak hautatuak ez izan (hauteskunde guztietan bezala), denek irabazi dute, pentsamendu kritikoa garatu dutelako, eta sentsibilizazio kanpaina handia ere izan delako.

## Martxan da Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketa

Dagoeneko Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketan parte hartzeko prestatzen ari gara: 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleak ipuin proiektuan murgilduta daude, lehiaketarako aurkeztuko dituzten ipuinak ekoizten. Urtero bezala, Euskararen Egunean Ermua Antzokian ospatzen den jaialdian jakinarazioko dira saridunak.

**quetzal**  
[arropa, bitxiak, opañak...]

Zubiurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluqueria

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474

688819336

# Zuri

**I**gande goizeko lehenengo argi izpiekin idazten dizut sekula egin ez dudana bezala, udazkeneo haizeak zuhaitzetako hostoekin dantzatzen egiten duen bitartean. Ez dakit zein den zure izena, ezta barre egiten duzunean begiak ixten dituzun edo ez, egunsentiak edo ilunabarrak nahiago dituzun, itsasoaren soinua erlaxatu edo urduri jartzen zaituen. Tren geltokian, herriko kafetegian, autobus paradan, parkean, institutuan, aireportuan edo mendian zauden ideiarik ez dut, baina, idatzi honek zure izena darama.

Azkenaldian noraezean sentitu zarelara imajinatzen dut, zure bizitzako azken urte t'erdiak lapurtu dizun askatasun sentimenduarekin adiskidetzeko saiakerak egiten, "guzti honen aurreko bitzitz" nolakoa zen gehiegi pentsatu gabe, ez baita osasuntsua nostalgiaz elikatzea. Ulertu egiten zaitudala ez dizut esan nahi,

zure barne ispiluan begiratzen duzun horietan zer ikusten duzun jakin ez dakidalako. Baina ulertzen zaitut. Ez didazu inolako aholkurik eskatu eta badakit, aholkurik behar izatekotan ez nintzatekeela zure lehenengo, ezta azkenengo aukera izango. Baina hala ere, itsasoan zehar bidaiatuko duten hitz hauen oihartzunak laztan baten forman jasotzea espero dut.

Utzi iezaiozu pentsatzeari eta egizu gorputzak eskatzen dizun hori. Badakit beldurtuta zaudela, zalantza beteta. Ulertzen dut arriskuek pisu gehiago dutela aukera kostuaren balantzan, grabitateak estatiko mantentzera behartuko bagintu bezala, koherentzia desafiatzen duen mundu kontraesankor honetan. Erabakia hartzea zaila dela eta ondorioen kalteak kalkula ezinak izan daitezkeela. Badakit. Nik ere sentitu ditut ezinegonaren egon ezintasuna, arnas batetik bestera eramango zaituen ziurtasunak



*Olatz Santos*

nahikoa izateari uzten dion une horretan sentitzen duzun antsietatea.

Ez dakit zein den hartu behar duzun erabakia, ezta noiz, nola edo non aurkituko duzun honen erantzuna. Baina badakit, mundu honetan, zure gorputza dela aurkituko duzun babeslekurik ederrena eta zure azalak sekula imajinatuko ez zenituzkeen memoriak gordeko dituela. Badakit uste duzun baino ausartagoa zarelara eta indarrak kale egiten dizun horietan ere zure bihotzak bizirik zaudela gogoratuko dizula. Beraz, bizi, arriskatu, esan nahi duzun hori esan, eta inork entzuten ez zaituela uste baduzu oihukatu... edo idatzi. Lokatzez betetako bidean oreka hartzen laguntzen dizun lagunaren eskua heldu eta utz iezaiozu jasotzen duzun maitasuna merezi duzun edo ez zalantza jartzeari. Besarkatu itzazu zure akatsak eta onartu itzazu zure arrakastak. Munduko edozein lekutan logela propio baten garrantzia aldarrikatzen jarraitzen duzun bitartean ezazu sekula ahaztu: zu zara zure etxea.

“ Ez dakit zein den hartu behar duzun erabakia, ezta noiz, nola edo non aurkituko duzun erantzuna ”

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOIA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**



Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

# DAVID MARCOS

- Kirolak oso gustuko dituzu orain, baina betidanik izan duzu zaletasun hori?

Bai, bai. Txikitatik izan naiz kirolzalea eta betidanik jardun dut bat baino gehiagotan. Nerabezaroan ere beti izan ditut presente. Honek ere gerora ere baldintzatu nau, bai ikasketetan eta baita lanean ere.

- Txikitan kirolaria izan nahi zenuen?

Txikitan futbolaria izan nahi nuen, ume askok bezala. Baina gaur egun futbola ez da egunerokotasunean praktikatzen ditudan kirolerako bat.

- Zeintzuk dira bada kirol horiek?

Igeriketa, korrika eta mendian ibiltzea dira egun praktikatzen ditudan kirolak. Egun bakoitzean bat praktikatzen dut, eta horrela aldatzen noa egunetik egunera.

- Hiru egunez behintzat...

Hala da, hiru egunetara ziklo berdina errepikatzen dut.

- Aipatu duzu haurtzarotik kirolak eragina izan duela gerora egin dituzun ikasketak eta lanean...

Gutziz. Eibarren Goi Mailako Jarduera Fisikoak eta Kirolak ikasketak egin nituen, eta gero Ermuko Kiroldegian hasi nintzen lanean, orain dela 18 urte.

- Eta oraindik gustuko duzu Kiroldegian ibiltzea?

Asko gustatzen zait. Egia esanda zorte handia dut, pozik joaten naizelako lanera. Gustatzen zait bertara doan jendearekin dudana harreman...



**38 urte ditu, eta Kiroldegiko begiralea da. Bere gurasoak Salamanca eta Guadalajaratik etorri ziren. Arreba nagusi bat du eta alaba bat ere. Kirolzale amorratua da, eta hainbat jarduera praktikatzen ditu.**

na, txikienetik nagusienera. Klaseak ematea ere oso gustuko dut. Lan oso sozial batean murgilduta nago.

- Irakasle lan horietan ere ondo zabilta?

Gustatuko litzaidake heziketa fisikoko irakasle izateko ikasi izan banu, baina orain pixka bat berandu da. Lana eta alabaren artean ez dut ia denborarik!

- Aita izanik, zer gustatuko litzazuke alabari erakustea?

Arduratsua eta pertsona ona izaten. Baita pozik bizi ahal izatea ere, ahal den heinean.

- Zer irakatsi zizuten zuri gurasoek?

Pertsona ona izaten, eta harremanak zaintzen.

- Eguneroko harremanak garrantzitsuak dira zuretzat?

Bai. Gustatzen zait familia-rekin eta lagunekin ahalik eta gehien egotea. Uste dut garrantzitsua dela arazoak dituzunean jendea hurbil

edukitzea: laguntzeko, konpainia egiteko... edo zertarako. Hori da lagunengan miresten dudana gauza handienetako bat.

- Bidaia bat egingo bazenu, nora joango zinateke?

Toki askotan ibili naiz jada, eta ez dakit nora joango nintzatekeen, baina karabana batean bidaiatzea gustatuko litzaidake.

- Egindako bidaia horietan kirol berriren bat ezagutzeko aukera izan duzu?

Tailandian *Muay Thai*-a ezagutu nuen aspaldi, gaur egun gure artean oso ezaguna dena.

- Zure bertute bat aipatu beharko bazenu...

Esango nuke oso zuzena izatea badela bertute bat. Askotan gauzak esan egin behar dira.

- Eta akats bat?

Batzuetan, egunean eta momentuan gertatzen ari denari beharren, hurrengo egunari edota etorkizunari asko erreparatzen diot. Ikasi behar dut orainaz gozatzen, nire buruari hainbeste buelta ez ematen.

- Azkenik, zein izango litzateke zure eguneroko momentu bat?

Lanetik irteten naizenean, zerbait hartzera joan eta lasaitzea. Batzuetan bakarrik egotea ere gustatzen zait: oso urduria naiz eta asko eskertzen dut une batzuetan lasaitzera heltzea.

Nahia Ruiz Albizuri






ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



**- Itsaskabra pudina.**

**- Txipiroiak.**

**- Piper beteak: okela edo ondoak.**

**- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.**

**- Redondo saltsan.**

**- Sagar tarta.**

**- Gazta tarta.**

**- Tortila patata...**

**Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

**Erdikokale 13 (Ermua)**

**ENKARGUAK 943 030 299**

## MALLABIA 1965

Eibarko lehenengo Euskal Jaia 1965. urtean antolatatu zen, eta argazkian idiekin agertzen dena Ispillako Gregorio Izagirre da.

Ekainaren 1eko *La Gaceta del Norte* egunkariak hau idatzi zuen:

"Millares de niños, con trajes típicos llenaron Eibar en la Fiesta Vasca Infantil".



## ERMUA 1936



Zubiaurren gora, Ugaldeneko eta Pedratxaneko etheen parean, herritarrak biribilketa ederrean, txistu eta danbolin soinu lagunduta. Indalecio Ojanguren argazkilaria eibartarrak ateratako irudi honek atzean idatzita dakar: "La Romeria (bi errekin, bai) de Sakristia de Ermua". Aurrengo ilaratan doaz Claudio Gorritxategi, Marina Izarra, Tomas Lasarte, Luis Albizu, Ignacio Gorritxategi, Pedro Antxustegi...

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
[www.artrosermua.com](http://www.artrosermua.com)

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
[ermukoudaleuskaltegia@gmail.com](mailto:ermukoudaleuskaltegia@gmail.com)

## LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.  
© 648625209.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.  
© 617 67 49 27



**Urriaren 3an**  
Zorionak aitatzxo!!  
Asko maite zaitugu!!  
Onena zara!! Izaro,  
Koldo ta amatxoren partez.



**Urriaren 29an**  
Zorionak Maider!  
6 urte neska handi!  
Asko maite zaitugu  
maixia ;-))



**Urriaren 9an**  
Zorionak Nahia zure  
4. urtebetetzeari,  
aitite Jose eta  
amama Marceren  
partez. Asko maite  
zaitugu, polit hori.  
Musu asko.



**Azaroaren 10ean**  
Zorionak etxeko  
neska politxari! 8  
urte jada! Familia  
guztziaren partez  
egun hau merezi  
dozun moduan  
pasatzea espero  
dogu. Patxo haundi  
bat, Julene!!



**Urriaren 31n**  
Zorionak Lander!  
Muxu pila  
etxekoan partez  
zure zazpigarren  
urtebetetzeari.



**Azaroaren 8an**  
Zorionak Lucia!!!  
Bost urte bete  
dituzu! Asko  
maite zaitugu.  
Musu erraldoi bat  
Libe, amatxo eta  
aitatzoren partez.



**Azaroaren 20an**  
Zorionak Maialen!!!  
5 urte haundi  
dagoeneko! Patxo  
erraldoi bat familia  
guztziaren partez!!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko,  
bidali mezua elektronikoa helbide honetara:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Azken eguna: Azaroaren 17a.



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

**ZINEA**

**Hilaren 6tik 9ra.**  
**Hilaren 13tik 16ra.**  
**Hilaren 20tik 23ra.**  
**Hilaren 27tik 30era.**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 4.**  
**Hilak 11.**  
**Hilak 18.**  
**Hilak 25.**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 7.**  
**Hilak 14.**  
**Hilak 21.**  
**Hilak 28.**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 17:00etan.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 6:**  
 Ipuin-kontaketa ingelesez.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kulturgunean.

**Hilak 20:**  
 Ipuin-kontaketa.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kulturgunean.

**Hilak 27:**  
 Antzerkia: "Uniko",  
 Paraiso antzerkiaren eskutik.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4 €.

**ANTZERKIA**

**Hilak 12:**  
 "Gran reserva",  
 Rhum y Ciaren eskutik.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 15 €.

**Hilak 17:**  
 Umorezko bakarriketa:  
 "No hay patriarcado ni en el supermercado",  
 Irantzu Varelarekin.  
 18:30ean.  
 Lobiano kulturgunean.  
 Sarrera doan.

**Hilak 19:**  
 "Losers", Aitziber  
 Garmendia eta Jon  
 Plazaolarekin.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €.

**MUSIKA**

**Hilak 5:**  
 Kontzertua:  
 Olatz Salvador.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €

**Hilak 20:**  
 Jazz-blues kontzertua:  
 Eunice.  
 20:00etan.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 Sarrera: 10 €.

**Hilak 24:**  
 Zezilia Deuna:  
 ekitaldi musikala.  
 19:00etan.  
 liburutegiko patioan.

**Hilak 26:**  
 Zezilia Deunaren jaialdia.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 3 €.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 11ra arte:**  
 Margoak: Durangaldeko  
 arte elkartearen lanak.  
 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.

**Hilaren 15etik 28ra:**  
 Argazkiak: "2021eko  
 oporrak" lehiaketara  
 aurkeztutako lanak.  
 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.

**Azaroaren 29tik  
 abenduaren 12ra:**  
 "Zer da zuretzat lan duina?"  
 Iparraldearen eta hegoal-  
 dearen arteko begiradak".  
 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 11ra arte:**  
 Gastronomiari buruzko  
 jardunaldiak: hainbat  
 ekitaldi.

**Hilak 13:**  
 San Martin Azoka:  
 Hainbat ekitaldi.  
 11:00etatik aurrera  
 Orbe Kardinalaren plazan  
 eta inguruko guneetan.

**Hilak 15:**  
 Gaztañerre:  
 Gaztainen banaketa eta  
 musika giroa.  
 19:00etatik aurrera.

**Hilak 20:**  
 Magostos:  
 Gaztainen banaketa eta  
 musika giroa.  
 11:00etatik aurrera.  
 Galiziako zentroan.

Patxi López

**DEBABARRENA****Eibar:**

Urriaren 31n, VI. Breaking  
 Eibar dantza txapelke-  
 ta. Breaking lehiaketa  
 16:00etan Errebal pla-  
 zan, 2vs.2 modalitatean,  
 eta all style battle-ren  
 paraleloko lehiaketa.  
 Gonbidapena behar da:  
 Coliseo Antzokiko leihatilan,  
 astelehen eta ostiraletan  
 17:30etik 19:30era, edo  
 Kutxabanken alde zurretik.

**Deba:**

Fokupean, Emakume  
 Aktoreen Festibala.  
 Azaroaren 5ean,  
 "Maringurua: Karanbola  
 Hirukoitza" solasaldia.  
 19:00etan, Debako Kultur  
 Etxean.  
 Azaroaren 6an, "Hiru  
 Kortse, azukre asko eta  
 brandy gehiegia" antzelana,  
 19:30ean zuzendutako kar-  
 pan.  
 Azaroaren 7an, antzerki  
 tailerra, 10:00etan jubila-  
 tuen egoitzan. 12:30ean,  
 "Andrezaharraren manifes-  
 tua" antzezlana zuzendutako  
 karpan.  
 Azaroaren 12an, "Lakoste"  
 antzezlana Gaztetxean,  
 19:30ean.  
 Azaroaren 13an eta 14an,  
 emakumei zuzendutako  
 antzerki tailerra Agirre  
 Jauregiko Ispiluen gelan,  
 10:00etan.

**Soraluze:**

Azaroaren 13an,  
 Gaztañerre azoka.

**Enter**  
 Informática

SALMENTAK  
 IRAKASKUNTZA  
 ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
 943 17 90 37  
 enter@informaticaenter.com

**arral**

Luis Cañas  
 Amaren  
 Cair  
 Ehun  
 Txakoli Astobiza  
 Pazo Señarans  
 Cava Oriol Russell

Cair  
 Cosar de Burbia  
 Bodegas Valdemar  
 García de Olano  
 Manzanos Wines  
 Pernard Ricard Wines  
 Faustino García Martínez.

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
 nítida

T.943176075

arral@arral97.com | Pol. Goitondo-Gaioa, Parc. 7 - Pab. 1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

**Proba-Leku**  
 Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
 Tel. 943 17 05 42



**ONAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 ☎ 943 17 47 44

**irale**  
 Hortz Klinika  
 Clinica Dental  
 U. Zetarkalea, 5  
 48260 Ermua, Bizkaia  
 ☎ 943 17 71 04

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Ermua Tel.: 943 030 512  
 niklinika@gmail.com

# OSASUN GIDA

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13, beheak  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen  
 den odontologia  
 La odontología  
 que se adapta a ti

**SAN PELAYO**  
 HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

Dra. ULATZ GARCÍA ARREGUI ☎ 943 17 04 04

- P.A.D.I
- IMG
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

✉ info@clincicasanpelayo.com  
 📍 San Pelayo Zetarkalea, 5  
 48260 Ermua (Bizkaia)

**FUB** Mediku psikiatra - Psikosomatika  
 Psikoterapia psikoanalitikoak  
**FERNANDO URIZ AR BARANDIARAN**  
 Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
 Bailen Kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
 furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo  
 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

# ERMUAN, XXXI. SAN MARTIN AZOKA



Euskal  
Birusa  
Elkarteak

**AZAROAREN 13an  
LARUNBATA**

**11:00**

Plazan: Postuak, dantzak, saiheski-pintxoak eta taloak.  
Santiago plazan: Artisauak.  
Martxoak 8 plazan: Herri kirolak.  
Herriko kaleetan barrena: Itsasi taldeko joaldunak.  
Probalekun: Idi pareak.  
San Martin plazan: Kulki umeentzako jolasak.  
Komentukuan: Ikastetxeen postuak.

**13:30**

Sari banaketa postuz postu.

**18:00**


Luhartz erromeria plazan.

**19:00**

Kalejira Bizkaiko gaiteroekin.

**19:00**

Errifa zozketa, larraindantza  
eta argazki lehiaketaren  
sari banaketa plazan.



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



BABESLEAK

